

OHIKO GALDERAK

Osakidetza

LEKUALDATZE-LEHIAKETA IREKI ETA IRAUNKORRA

1.- IZANGAIEN BETEKIZUNAK

1.1- Nork har dezake parte borondatez?

Osakidetzako estatutupeko langile finkoek, lan-kontratadun finkoek edo karrerako funtzionarioek har dezakete parte, parte hartzeko eskabidea aurkezten den kategoria/lanpostu funtzional berekoak edo baliokidekoak badira. Osasun Sistema Nazionaleko osasun-zerbitzuetako estatutupeko langile finkoek ere har dezakete parte, baldin eta parte hartzeko eskabidea aurkezten kategoria/lanpostu funtzional berekoak edo baliokidekoak badira.

1.2- Zein administrazio-egoeratik lehiatu daiteke?

Honako administrazio-egoera hauetatik har daiteke parte:

- Lehiaketaren kategoria/lanpostu funtzional berean edo baliokidean zerbitzu aktiboko edo lanpostu-erreserbako egoeratik.
- Zerbitzu aktiboaz bestelako egoeratik, lehiaketaren kategoria/lanpostu funtzional bereko edo baliokideko plazaren erreserbarik gabe. Horretarako, bertan sartzeko legezko eta arauzko baldintzak bete behar dira, destinoak eskaintzeko eta esleitzeko ziklo jakinerako deialdia egiten duen ebazpenean baldintzak betetzeko ezarritako epearen azken egunean.

Osakidetzak deitutako lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean ezin izango dute parte hartu Osasun Sistema Nazionaleko estatutupeko langile finkoek, baldin eta eginkizun-gabetze irmoan badaude, eteteak irauten duen bitartean.

1.3- Nork hartu behar du parte derrigorrez?

Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean derrigorrez parte hartu behar dute Osakidetzako langileek, baldin eta zerbitzu aktiboan eta behin-behineko atxikipenean badaude Ente Publikoan.

1.3.1- Zer destino aukeratu behar dituzte derrigorrez parte hartu behar duten pertsonak?

Aipatutako langileek, gutxienez, behin-behineko izaerarekin betetzen duten lanpostuari dagokion osasun-arloaren modalitateko eta kategoriako/lanpostu funtzionaleko destino guztiak eskatu beharko dituzte derrigorrez, lehentasun-ordenaren arabera.

1.3.2- Noiz aurkeztu behar dituzte eskabideak derrigorrez parte hartu behar duten pertsonak?

Pertsona horiek lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute esleipen-zikloa deitzen duen ebazpenean adierazitako izena emateko epea amaitu baino lehen; zerbitzu aktibora berriz itzuli ondoren egiten den lehenengoan, alegia.

1.3.3- Zer gertatzen da derrigorrez parte hartu behar duten pertsonak esleipendun ez badira?

Behin-behinean itzuli diren eta lehiaketan behin betiko plazarik lortzen ez duten pertsonak, dagokien osasun-arloan deitutako modalitate eta kategoria/lanpostu funtzionaleko destino guztiak eskatu ondoren, beste behin-behineko destino bat eskatzeko aukera izango dute mugikortasun-prozesua ebaztearen ondorioz hutsik geratzen diren destinoetako batean; edo borondatezko eszedentzia-egoerara igaro ahalko dira, betiere horretarako baldintzak betetzen badituzte.

Aukera hori baliatzeko, parte hartzeko eskabidean adierazitako plazak hartuko dira kontuan.

1.3.4- Zer gertatzen da derrigorrez parte hartu behar duten pertsonak ez badute parte hartzen?

Zerbitzura behin-behinean itzuli diren, eta lehiaketan parte hartzen ez duten edo destinatorik lortzen ez duten eta dagokien osasun-arloan deitutako kategoriako destino guztiak eskatu ez dituzten pertsonak borondatezko eszedentzia-egoera aitortuko zaie ofizioz, horretarako baldintzak betetzen badituzte.

1.4- Noiz bete behar dira baldintzak?

Dagozkien esleipen-zikloetan, lehiaketan parte hartzeko baldintzak mantendu egin beharko dira deialdia egiten duen Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritzaren Ebazpenean adierazitako datatik esleitutako destinoaz jabetzeko egunera arte. Bestela, deialditik sortutako eskubide guztiak galduko dituzte langileek.

2. ESKABIDEA

2.1- Nola ematen da izena lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean?

Lehiakide bakoitzak kategoria/lanpostu funtzional bakoitzean parte hartzeko eskabide bakarra bete beharko du, Hautaketa eta Horniketako webgunearen bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren atalean. Hau da helbidea: www.osakidetza.euskadi.eus.

2.2- Noiz aurkez daiteke lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartzeko eskabidea?

Parte hartzeko eskabidea edozein unetan aurkez daiteke, eperik gabe, kategoriaren deialdiaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Esleipen-ziklo bakoitzean, dagokion zikloko destino-eskaintzari buruzko ebazpenak adierazten duen datan web orrian erregistratutako eskabideak sartuko dira, betiere ebazpen honetan jasotako destinoetako bat gutxienez aukeratu bada.

2.3- Zer iraunaldi du lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartzeko eskabideak?

Eskabidea aurkeztu ondoren, parte hartzeko eskabideak indarrean jarraituko du hurrengo esleipen-zikloetan lehiakideari hautatutako destinoen bat esleitu arte, hargatik eragotzi gabe eskabidean atzera egiteko, uko egiteko edo aldatzeko aukera.

2.4- Zer destino aukera daitezke?

Eskabidearen destinoak aukeratzeko atalean, lehiakideak zer destino aukera ditzakeen ikusi ahal izango du, bere kategoriaren/lanpostu funtzionalaren arabera, eskabidea aurkezteko unean lanpostua hutsik dagoen ala ez kontuan hartu gabe.

Ikus daitezkeen destinoak kategorietako/lanpostu funtzionaletako oinarrizko lanpostu guztiek osatzen dituzte. Horiek alderdi hauen arabera daude sailkatuta: Zerbitzu-erakundea, lantokia, antolaketa-unitatea eta dagokien udalerrria, lanaldia, sartzeko berariazko betekizunak eta hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarekin (baldin eta derrigortasun-data esleituta badago eta iraungi ez bada).

2.5- Osakidetzako oinarrizko plantilla aldatu al daiteke denborak aurrera egin ahala? Hala bada, zer ondorio dakartza?

Osakidetzako oinarrizko plantilla ez da estatikoa, eta, hainbat arrazoi direla medio (batzuk denboraren igarotze hutsarekin lotuta, hala nola hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-dataren epemuga), prozesu orokorrean modu iraunkorrean hautagarri dauden destinoen elementu bat edo guztiak alda daitezke.

Aldian-aldean, prozesu orokorrean hauta daitekeen oinarrizko plantilla eguneratuko da.

Eguneratu ondoren destinoen elementuren bat edo guztiak aldatuz gero, hautagarri izateari utzi ahalko dio.

2.6- Zer gertatzen da izangai batek oinarrizko plantilla eguneratu ondoren desagertu den destinoetako bat aukeratu badu bere eskabidean?

Eskabidean hautatutako destinoa desagertu egiten bada elementuren bat edo batzuk aldatu direlako, destino horren hautaketa baliogabetu egingo da.

Baliogabetze hori posta elektronikoz jakinaraziko zaio izangaiari, eta bere eskabideko destino-hautaketa berrikusteko esango zaio.

2.7- Zer plaza eskaintzen dira ziklo bakoitzean?

Ziklo bakoitzean eskaini eta esleitu daitezkeen lanpostuak dira zikloaren deialdiaren ebazpenak ezartzen dituen erreferentziako datetan hutsik daudenak.

2.8- Zer plaza gera daitezke lehiaketatik kanpo?

Lanpostuak lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorretik kanpo geratu ahal izango dira honako kasu hauetan:

- a) Horrela aurreikusten duenean Giza Baliabideak Antolatzeko Plan batek.
- b) Indarrean dauden hautaketa-prozesuekin lotuta daudelako horniketarako eskuragarri ez dauden lanpostuak direnean.
- c) Salbuespen gisa, behar bezala oinarritutako bestelako baldintza teknikoak eta antolamenduzkoak gertatzen direnean, Osasuneko Mahai Sektorialean ordezkartza duten sindikatuekin egoera hori negoziatu ondoren.
- d) Osasun-arrazoiak direla medio egonkortze-prozesuetan dauden lanpostuak direnean.

2.9- Nola jakin dezaket zer destino eskaintzen diren ziklo bakoitzean, eskabide orokorrean guztiak ikus eta aukera badaitezke, kategoria/lanpostu funtzionaleko oinarritzko lanpostuen arabera taldekatuta, titularrak izan ala ez?

Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza webgunean argitaratuko du aurtengo esleipen-zikloari dagokion destinoen eskaintza.

Eskaintza horretan destino-kopurua zehaztuko da, irizpide hauen arabera sailkatuta: kategoria/lanpostu funtzionala, zerbitzu-erakundea, lantokia, antolaketa-unitatea eta dagokien udalerrria, lanaldia, sartzeko eskakizun espezifikokoak eta hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarekin (esleitura egonez gero).

2.10- Zer gertatzen da lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartzeko eskabidean ez bada destinorik aukeratzen?

Eskabiderik egin ez dela ulertuko da.

2.11- Zer gertatzen da parte hartzeko eskabidean ez bada hautatzen ziklo bateko destino-eskaintzari buruzko ebazpenean jasotako destinorik, ebazpenean bertan zehaztutako erreferentzia-datan?

Eskabidea ez da dagokion zikloan sartuko, eta indarrean jarraituko du hurrengoetarako, hargatik eragotzi gabe atzera egiteko, uko egiteko edo aldatzeko aukera.

2.12- Nola jakin dezaket eskabidea destinoak eskaintzeko eta esleitzeko ziklo jakin batean sartzen den?

Zikloko destinoak eskaintzen dituen Osakidetza Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren ebazpenak adieraziko du ziklo horretako interesdunek aukeratutako destinoetarako kontuan hartu beharreko erreferentzia-data.

Ziklo jakin horretan, aipatutako erreferentzia-datan eskaintako destinoren bat duten eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

Eskaintako destinoren bat aukeratu dela egiaztatu ondoren, baldintza hori betetzen duten eskabideak aurkeztu dituzten interesdunek ikusiko dute eskabidea indarrean dagoen zikloan sartu dela.

2.13- Aldatu al daiteke destino-hautaketa ziklo bateko destino-eskaintzaren ebazpena argitaratu ondoren?

Bai, ziklo jakin bateko destino-eskaintzaren ebazpenean adieraziko da zer data hartuko den erreferentziatzat dagokion zikloan hautatutako destinoak kontuan hartzeko.

Aldaketa hori Hautaketa eta Horniketako webgunean egingo da, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrari dagokion atalean, helbide honetan: www.osakidetza.euskadi.eus

Ziklo jakinaren destino-eskaintzari buruzko ebazpenean adierazitako data ondoren destino-hautaketan egindako aldaketak kontuan hartuko dira hurrengo zikloetarako, baina ez ziklo jakin horretarako.

2.14- Atzera egin al daiteke lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartzean?

Bai, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko prozesu orokorrean parte hartzeko eskabidean atzera egin daiteke, edozein unetan, Hautaketa eta Horniketako webgunearen bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren atalean. Helbide honetan dago eskuragarri: www.osakidetza.euskadi.eus

Atzera egitearen ondorioak desberdinak dira aurkeztu den unearan eta destinoak esleitzeko behin-behineko ebazpena argitaratzen den dataren arabera.

Atzera egiteko aukera egongo da destinoak esleitzeko behin-behineko ebazpenaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte.

2.15- Zer ondorio ditu atzera egiteak?

- Indarrean dagoen destinoak eskaintzeko eta esleitzeko zikloaren eskabidea baliogabetuko da.
- Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozesu orokorraren eskabidea baliogabetuko da.
- Hurrengo zikloetan parte hartu ahal izateko, prozesu orokorraren beste eskabide bat egin beharko da.
- Indarrean dagoen zikloan behin-behinean esleitutako destinoa baliogabetuko da.

2.16- Zer ondorio ditu atzera egiteak, ziklo jakin bateko destinoak esleitzeko behin-behineko ebazpenaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren?

- Ziklo jakineko eskabidea mantenduko da.
- Behin-behinean esleitutako destinoa mantenduko da, hargatik eragotzi gabe erreklamazioen ondorioz gertatzen diren aldaketak.
- Eskabidean hautatu den eta zikloan eskaintzen den destinoren bat behin betiko esleitzeko aukera mantenduko da, destino hori behin-behinean esleitu zitzaion lehiakideak eskubidea galtzen badu.
- Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozesu orokorraren eskabidea baliogabetuko da.
- Hurrengo zikloetan parte hartu ahal izateko, prozesu orokorraren beste eskabide bat egin beharko da.

2.17- Partzialki atzera egin al daiteke lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartzean?

Ezin daiteke partzialki atzera egin eskatutako destinoetan, atzera egitea erabatekoa da. Parte hartzeko beste eskabide bat aurkeztu edo indarrean dagoena aldatu daiteke, hori egiteko epe barruan egonez gero.

2.18- Behin-behineko esleipendun batek atzera egiteak beste parte-hartzaile batzuei eragin diezaieke?

Behin-behineko esleipendunak atzera egiten badu, destino hori behin betiko esleitu ahal izango zaie zikloan jarraitzen dutenei eta gainerako baldintzak betetzen jarraitzen dutenei, ez baitute atzera egin.

2.19- Baldintzapeko eskabideen kasuan, eragiten al dio pertsona batek atzera egiteak bestearen eskabideari?

Ez, baldintzapeko eskabidea egin duen lehiakide batek atzera egiteak ez dakar beste lehiakideak atzera egitea.

2.20- Uko egin al dakioke lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartzeko zikloari?

Bai. Zikloari uko egiteko, ziklo jakin bateko destinoak behin-behinean esleitzeko ebazpena argitaratu baino 10 egun lehenago egin behar da, Hautaketa eta Horniketako webgunearen bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren atalean. Helbide honetan dago eskuragarri: www.osakidetza.euskadi.eus

2.21- Zein dira zikloari uko egitearen ondorioak, ziklo jakin bateko destinoen behin-behineko esleipenaren ebazpena argitaratu baino 10 egun lehenago aurkeztuz gero?

- Indarrean dagoen destinoak eskaintzeko eta esleitzeko zikloaren eskabidea baliogabetuko da.
- Indarrean jarraituko du lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartzeko prozesu orokorraren eskabideak, eta, beraz, hautatutako destinoen bat eskaintzen den hurrengo zikloetan parte hartu ahal izango du.

Uko-egitea aurkeztu ahal izateko, Osakidetza hamabost laneguneko aurrerapenarekin iragarriko du, gutxienez, indarrean dagoen ziklo jakinaren destinoak behin-behinean esleitzeko ebazpenaren argitalpen-data. Data Hautaketa eta Horniketako webgunean argitaratuko da, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra atalean. Helbide honetan eskura daiteke: www.osakidetza.euskadi.eus

2.22- Partzialki uko egin al dakioke lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartzeari?

Ez, ezin dakioke partzialki uko egin eskatutako destinoei, uko egitea erabatekoa da.

2.23- Baldintzapeko eskabideen kasuan, eragiten al dio pertsona batek uko egiteak bestearen eskabideari?

Ez, baldintzapeko eskabidea egin duen lehiakide batek uko egiteak ez dakar beste lehiakideak uko egitea.

2.24- Uko egin dakioke destinoak esleitzeko behin betiko ebazpenaren bidez esleitutako destinoari?

Ez. Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, salbu eta uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada –Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4. artikuluan ezarritakoaren arabera– edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

2.25- Uko egin al dakieke behin betiko esleitutako destinoei, aldeztatik behin-behinean esleitu ez baziren?

Ez. Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, behin betiko esleipenduna destino horren behin-behineko esleipenduna izan ez bada ere.

Salbuespena da uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada –Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4. artikuluan ezarritakoaren arabera– edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

2019ko azaroaren 27ko Erabakiak uko egiteko eta atzera egiteko epea destinoen behin-behineko esleipenaren zerrenda argitaratu zen datarekin lotzen du, eta lehiakide guztiei aplikatu dakieke, behin-behineko zerrenda horretan destinoen bat esleitzen zaien ala ez kontuan hartu gabe.

2.26- Zer gertatzen da lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko eskabidearekin, ziklo jakina ebatzi ondoren?

Bi egoera daude:

- a) Ziklo jakin bat behin betiko esleitzeko ebazpenak langileari destino bat esleitzen badio, lehen aukera ez izan arren:
 - Aurkeztutako parte hartzeko prozesu orokorraren eskabidea automatikoki baliogabetuko da.
 - Prozesu orokorraren beste eskabide bat aurkeztu beharko du kategoria/lanpostu funtzional bereko hurrengo esleipen-zikloetan parte hartu ahal izateko.
 - Urtebetez egon beharko da destinoan, behin betiko esleipenaren ebazpenaren egunetik zenbatzen hasita, beste lekualdatze-lehiaketa batera aurkeztu ahal izateko.

Denbora-muga hori ez da aplikatuko, iraungi baino lehen, pertsona interesdunak lortutako lanpostuarekiko atxikipena galdu duenean, bai lanpostua desagerrarazi dutelako edo langilea lanpostuz aldatu badute gerora sortutako arrazoiengatik.

- b) Ziklo jakin bat behin betiko esleitzeko ebazpenak langileari destino bat esleitzen ez badio:
 - Prozesu orokorraren eskabideak indarrean jarraituko du, hurrengo esleipen-zikloetarako egin den azken plaza-hautaketarekin, hargatik eragotzi gabe parte hartzen duen pertsonak hura aldatzea edo atzera egitea.

2.27- Zenbat atal ditu lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartzeko eskabideak?

Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartzeko eskabideak hiru atal ditu:

1. Datu pertsonalak, jakinarazpen-datuak eta administrazio-egoeraren datuak egiaztatu eta erregistratzeko atal bat.
2. Destinoak aukeratzeko atal bat.
3. Merezimenduak egiaztatu eta erregistratzeko atal bat.

2.28- Eskatzailea Osakidetza jarduneko langilea bada, zer egin behar du datu pertsonalak, jakinarazpeneko datuak eta administrazio-egoerako datuak betetzeko?

Eskatzailea Osakidetzan lanean ari bada eskabideko kategoria/lanpostu funtzionalean edo baliokidean, datu pertsonalen atalean, Osakidetzaren informazio-sistemetan dagoen informazioa erakutsiko zaio. Datu horiek aldatu nahi izanez gero, dagokion zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzaren edo Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren bidez egin beharko du.

Jakinarazpen-datuen atalean, Osakidetzaren informazio-sistemetan dagoen informazioa agertuko da. Datu horiek prozesu osoan zehar aldatu ahalko ditu, baina dagokion ziklo jakinerako kontuan hartuko dira eskaintzaren eta destinoen esleipenaren ziklo jakina deitzen duen ebazpenean adierazitako epearen azken egunean agertzen diren datuak.

Administrazio-egoeraren atalean, Osakidetzako informazio-sistemetan zerbitzu-erakundeari, administrazio-egoerari eta lan-harremanari buruzko informazioa agertuko da.

Interesdunak uste badu azaltzen diren datuek ez dutela adierazten parte hartzeko baldintzak betetzen dituela edota zein den bere administrazio-egoera, edo uste badu datu horiek ez direla zuzenak, izena emateko inprimakia bete beharko du, eta Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali beharko ditu dagozkion alegazioak, justifikazio-dokumentazioarekin batera. Aipatutako alegazioak eta dokumentazioa noiznahi bidali ahalko dira, betiere horiek baliatu nahi diren destinoak eskaintzeko eta esleitzeko ziklo jakinerako deialdia egiten duen ebazpenean adierazitako epea baino lehen.

2.29- Eskatzailea Osakidetzako jarduneko langilea ez bada edo jardunean ez badago, zer egin behar du datu pertsonalak, jakinarazpeneko datuak eta administrazio-egoerako datuak betetzeko?

Eskatzailea ez bada Osakidetzako langilea edo ez badago jardunean eskabideko kategoria/lanpostu funtzionalean edo baliokidean, datu pertsonalen atalean, Osakidetzaren informazio-sistemetan dagoen informazioa erakutsiko zaio. Interesdunak eskatutako datuak bete beharko ditu, jasota ez badaude edo okerrak direla uste badu.

Jakinarazpen-datuen atalean, Osakidetzaren informazio-sistemetan dagoen informazioa agertuko da. Interesdunak eskatutako datuak bete beharko ditu jasota ez badaude edo okerrak direla uste badu, eta prozesu osoan zehar aldatu ahalko ditu, baina dagokion ziklo jakinerako kontuan hartuko dira eskaintzaren eta destinoen esleipenaren ziklo jakina deitzen duen ebazpenean adierazitako epearen azken egunean agertzen diren datuak.

Administrazio-egoeraren atalean azalduko da parte hartzeko eskabidea egiten den kategoria/lanpostu funtzionalean edo baliokidean langile finkoa izateari buruzko informazioa, Osakidetzaren informazio-sistemetan dagoena. Interesdunak eskabidearen inprimakian eskatutako datuak bete beharko ditu, jasota ez badaude edo okerrak direla uste badu.

2.30- Zer dokumentazio bidali beharko da Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzara, parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko?

Eskabidean azaltzen diren Osakidetzako informazio-sistemetan agertzen ez badira, honako hauek bidali beharko dira:

- a) Lehiatzen den kategorian estatutupeko langile finko gisa izandako izendapenaren kopia konpultsatua.

- b) Lortutako azken behin betiko destinoaren lanpostuaz jabetzearen egintzaren edo, hala balitz, behin-behineko zerbitzura itzultzeko ebazpenaren kopia konpultsatua.
- c) Beste osasun-zerbitzu batzuetan zerbitzuak ematen dituzten lehiakideek eta zerbitzu aktiboan daudenek edo lanpostuaren erreserba dakarten beste egoeretan daudenek behin betiko izaeraren egon diren azken oinarrizko lanpostua jabetzan hartzeko egintzaren dokumentuaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute, eta, hala balitz, lanpostua erresebatzeko eskubidea sortzen duen dokumentuaren fotokopia konpultsatua.
- d) Eszedentzia emateko ebazpenaren fotokopia konpultsatua, bai eta beste osasun-zerbitzu batek aurkeztutako dokumentazioa baliatu nahi den esleipen-ziklorako deialdia egiten duen ebazpenak adierazitako egunean egoera horretan jarraitzen duela egiaztatzen duen ziurtagiria ere, interesduna eszedentziako egoeran edo zerbitzu aktiboaz bestelako egoera batean dagoela aitortzen badu.
- e) Edozein administrazio publikotako zerbitzutik kendu ez dutela edo funtzio publikoak betetzeko desgaituta ez dagoela adierazten duen deklarazioa.
- f) Beste osasun-zerbitzu batean behin-behineko atxikipenaren akordioaren eta lanpostua jabetzan hartu izanaren dokumentazioaren fotokopia konpultsatua, interesduna atxikipen-egoeran badago edo behin-behinean zerbitzura itzuli bada beste osasun-zerbitzu batean.
- g) Interesduna kondena-epai irmo baten ondorioz ezarritako etenaldi-egoeratik edo diziplina-zehapenaren ondorioz administrazio-bidetik deklaritzen den eginkizun-gabetzetik badator, ezarritako zigorra edo zehapena bete duela egiaztatzen duen lekukotza judizial edo administratiboa.

2.31- Noiz aurkeztu behar da parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa?

Dokumentazioa noiznahi aurkeztu ahalko da, betiere alegazioak eta dokumentazioa baliatu nahi diren esleipen-ziklo jakinerako deialdia egiten duen ebazpenean adierazitako epea baino lehen.

Ez da beharrezkoa izango aurretik aurkeztu diren eta edukia eguneratzea eskatzen ez duten ziurtagiri edo dokumentuak berriz aurkeztea.

Beste osasun-zerbitzu batzuetatik datorren profesionalaren erantzukizuna da Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritzari jakinaraztea izena emateko inprimakian adierazitako administrazio-egoeran izandako edozein aldaketa, hori gertatzen den unean.

2.32- Zein destino hauta daitezke eskabidean?

Interesdunak bere kategoria/lanpostu funtzionaleko destino potentzialak hauta ditzake, eskabidea aurkezteko unean lanpostua hutsik dagoen ala ez kontuan izan gabe.

Destinoak kategorien/lanpostu funtzionalen oinarriko lanpostuek osatzen dituzte. Horiek irizpide hauen arabera daude sailkatuta: Zerbitzu-erakundea, Arloa/Azpiarloa, Lantokia, Udalerria, 1. motako unitatea - 2. motako unitatea, Lanaldia, Hizkuntza-eskakizuna—data (iraungitakoa, etorkizuneko data edo datarik gabea) eta Berariazko hizkuntza-eskakizuna. (*)

(*destinoen eremuaren, lanaldiaren eta hizkuntza-eskakizunaren kontzeptuak 5.1, 5.2 eta 5.3 galderetan azaltzen dira)

Ziklo bakoitzeko destino jakinak eskaintzen dituen Osakidetza Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren ebazpenak jakinaraziko du zein data hartuko den erreferentziatzat egindako destino-aukeraketan.

Interesdunak edozein unetan alda dezake destino-hautaketa.

2.33- Nola egiaztatzen dira merezimenduak?

Parte hartzen duen pertsonaren erantzukizuna da baremorako merezimenduak egiaztatzea eta erregistratzea.

Osakidetza kanpo egindako zerbitzuak notarioak emandako jatorrizko ziurtagiriaren edo zinezko fotokopiaren bidez egiaztatuko dira.

Prestakuntzari buruzko merezimenduak aplikazio informatikoan erregistratu behar dira, baliozkotu ondoren merezimendu gisa kontuan hartu ahal izateko.

Osakidetza langileek merezimendu horiek baliozkotuko dituzte lanean ari diren zerbitzu-erakundeetako baliozkotze-unitateetan, horretarako ezarritako irizpide orokorren arabera.

Beste osasun-zerbitzu batzuetatik datozen lehiakideen merezimenduak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzan baliozkotuko dira. Horretarako, interesdunak, eskabidearekin batera, prestakuntza-merezimenduen fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko du edozein unetan, eta, nolana ere, dokumentazioa baliarazi nahi den esleipen-ziklo zehatzerako deialdia egiten duen ebazpenean adierazitako eskabideak aurkezteko edo aldatzeko epea amaitu baino lehen.

Lehiakidea ez badago ados aplikazio informatikoak aldatzen uzten ez dion merezimenduren batekin, alegazioak eta dokumentazioa aurkeztu ahal izango ditu noiznahi Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritzan, betiere eskabideak aurkeztu edo aldatzeko epea amaitu baino lehen eta alegazioak eta dokumentazioa baliatu nahi diren esleipen-ziklo zehatzerako deialdia egiten duen Ebazpenean adierazitako moduan.

2.34- Zertan datza familia-bizikidetzak baldintzatutako eskabidea?

Kasu horretan, ezkondata dauden edo izatezko bikote diren bi lehiakideek parte hartzeko eskabidea baldintza dezakete familia-bizikidetzak dela-eta, baldin eta bi pertsona horiek herri berean lortzen badute destinoa.

Baremoa aplikatuz bi lehiakideei herri berean destinoa esleitzen ez zaien bitartean, horietako bat ere ez da destinoaren esleipenduna izango.

Baldintzapeko eskabidea indarrean egongo da hurrengo esleipen-zikloetarako, hura aldatu, atzera egin edo uko egin arte.

Baldintzapeko eskabide horri heldu nahi dioten interesdunek eskabidean jaso beharko dute, eta, horrekin batera, ezkontza-ziurtagiriaren kopia konpultsatua edo izatezko bikotea direla egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.

3.- MEREZIMENDUAK

3.1- Noiz baloratuko dira merezimenduak?

Merezimenduak destinoak eskaintzeko eta esleitzeko ziklo jakina deitzen duen Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren ebazpenak ezarritako epea amaitu arte baloratuko dira.

3.2- Zer merezimendu hartzen dira kontuan lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean?

Merezimenduen balorazioa dagokion kategoriako / lanpostu funtzionaleko azken lekualdatze-lehiaketan aplikatutako baremoarekin bat etorritik egingo da.

Esleipen-ziklo jakinerako ez dira kontuan hartuko epe kanpo egiaztatzen ez diren merezimenduak. Epe hori destinoak eskaintzeko eta esleitzeko ziklo jakina deitzeko Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ebazpenak ezartzen du.

Interesdunaren erantzukizuna izango da merezimenduak erreferentziako datan eguneratzea. Data hori Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren ebazpen bakoitzak ezartzen du, deitzen duen destinoak eskaintzeko eta esleitzeko ziklo jakinerako.

Eguneratze hori ziurtagiri berriak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztuz egingo da, baloratu daitezen, aplikazio informatikoan erregistratu eta baliozkotu ondoren.

Eguneratze hori egiten ez bada, egiaztatutako eta balioztatutako merezimenduak bakarrik kontuan izango dira.

3.3- Zer gertatzen da datu faltsuak ematen badira?

Edozein betekizun edo merezimendu agirien bidez egiaztatzean iruzur eginez gero, edo prozeduran lege-iruzurrean parte hartuz gero, eragindako pertsona lehiaketatik kanpo geratuko da, deialdia egin duen organoaren ebazpen arrazoitua jaso ondoren, eta hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren bestelako erantzukizunak.

4.- GARAPENA

4.1- Zenbatean behin egiten da lehiaketa?

Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrak deialdi bakarra izango du kategoria/lanpostu funtzional bakoitzerako, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Deialdi honek indarrean jarraituko du, eta urtean 2 destino-eskaintza eta horien esleipena izango ditu.

4.2- Zein da destinoak eskaini eta esleitzeko ziklo jakin bakoitzaren garapena?

Honako izapide hauek osatzen dute ziklo jakin bakoitza:

4.2.1- Eskakizunak betetzea. - Ziklo bakoitzean, Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzak egiaztatuko du dagokion zikloan eskainitako destinoetako bat gutxienez aukeratu duten interesdunek baldintzak betetzen dituztela, eta onartutako eskabideak epaimahai kalifikatzaileari helaraziko dizkio, lehiaketako merezimenduak balora ditzan.

Epaimahaiak kategorialan/lanpostu funtzional bakoitzaren destino-esleipenaren behin-behineko zerrenda onartu eta Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari igorriko dio, eta horrek Osakidetzako webgunean argitaratzea aginduko du.

4.2.2.- Behin-behineko esleipena. - Destinoak behin-behinean esleitzeko ebazpen honek hiru eranskin izango ditu:

- a) I. eranskinean onartutako langileen zerrenda agertuko da, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran.
- b) II. Eranskinean lehiaketatik baztertuak izan direnak agertuko dira, baztertzeko arrazoia adierazita.
- c) III. Eranskinean dagokion zikloan eskainitako kategoriaren/lanpostu funtzionalaren destinoak lortu dituen pertsonal esleipendunaren behin-behineko zerrenda agertuko da, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Ebazpen horren aurka izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal diote Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari, hamar egun balioduneko epean, hura Osakidetzaren webgunean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera.

Destinoak esleitzeko behin betiko ebazpenean garaiz eta behar bezala egindako erreklamazioei erantzun zuzena zaie (baietsi edo ezetsi ahal izango dira).

4.2.3- Behin betiko esleipena. - Epaimahai kalifikatzaileak lanpostu funtzional bakoitzaren destino-esleipenaren behin betiko zerrenda onartu eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari bidaliko dio. Organo horrek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko aginduko du.

Destinoak behin betiko esleitzeko ebazpen horrek hiru eranskin izango ditu:

- a) eranskinean onartutako langileen behin betiko zerrenda agertuko da, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran.
- b) II. eranskinean lehiaketatik baztertuak izan direnen behin betiko zerrenda agertuko dira, baztertzeko arrazoia adierazita.

- c) III. eranskinean dagokion zikloan eskainitako kategoriaren/lanpostu funtzionalaren destinoak lortu dituen pertsonal esleipendunaren behin betiko zerrenda agertuko da, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

4.3- Behin betiko ebazpenak esleitu al dezake behin-behineko ebazpenak esleitutakoaz bestelako destinorik?

Bai, esleitutako destinoaren aldaketa hainbat arrazoiengatik izan daiteke, hala nola:

- Onartutako pertsonen ordena alda ditzaketen erreklamazioak baiesteak, onarpenari eta behin-behineko ebazpenean aintzatetsitako puntuazioei buruzkoak.
- Behin-behineko ebazpena argitaratu eta hurrengo hamar egunetan onartuek eta esleipendunek atzera egiteak.

4.4 - Zein da lanpostua uzteko epea destino bat esleitzen bada?

Destinoa lortzen duten izangaiak betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

4.5- Zein da esleitutako destinoaz jabetzeko epea?

Lanpostuaz jabetzeak, oro har, esleitutako destinoan hasia dakar, eta honela egin beharko da:

- Kargua utzi eta hurrengo hiru egunen barruan, uzten den plaza eta lortzen dena herri berekoak badira.
- Bost eguneko epean, destinoak Euskal Autonomia Erkidegoko bi herri ezberdinetakoak badira.
- Hilabeteko epean, Osasun Zerbitzuz aldatzea badakar.

Emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen badira izangaiak, hilabeteko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan, esleipenduna Osakidetza zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badago, aurretik azaldutako epea izango du lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, hori konputatzeko okupatzen duen destinoa ere kontuan hartu beharko da, azken horren esleipendun ez bada behintzat. Horrela izanez gero, lanpostuaz jabetu da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian destinoak behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean behin-behineko atxikipenean badago edo kargua-utzi eta hurrengo egunean zerbitzu-eginkizunen eta aldi baterako barne-sustapenaren kasuetan.

4.6- Esleitutako destinoaz jabetzeko epean esleipendunak egoera hauetakoren batean badaude: gaixotasunagatiko lizentzia, haurdunaldian arriskua, edoskitzaroa, edo amatasunagatiko edo aitatasunagatiko baimena:

Jarduteko destinoa uzteko eta esleitutako destino berriaz jabetzeko izapideak egingo zaizkie, ohi epeetan, baina horrek ez du ekarriko emandako lizentzia edo baimena amaitzea.

4.7- Zer gertatzen da esleitutako destinoaz jabetzeko epean esleipendunek baimenak edo lizentziak badituzte?

Kasu horietan, emandako baimenak, lizentziak edo oporrak amaitzen direnean hasiko dira zenbatzen lanpostuaz jabetzeko epeak, esleipendunak luzapena eskatu ondoren.

4.8- Zer gertatzen da esleitutako destinoaz jabetzen ez bada?

Osakidetzan destinoa esleitu zaion pertsona lekualdatze-lehiaketan lortutako destinora ezarritako epean edo, hala badagokio, emandako luzapenaren epean itzultzen ez bada, interes partikularragatiko borondatezko eszedentziaren eskatzailatzat hartuko da, betiere horretarako legez ezarritako baldintzak betetzen baditu. Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzak deklaratu du egoera hori.

Hala ere, behar bezala justifikatutako arrazoiak badaude eta Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak hala erabaki badu interesdunak aurretik eskatutako entzunaldia ondoren, egoera hori indargabetu ahalko da. Kasu horretan, interesduna unean eragotzi zuten arrazoiak desagertu bezain laster destino berriari lanean hasi beharko da.

Beste osasun-zerbitzu bateko estatutupeko langileen kasuan, deitutako lekualdatze-lehiaketan parte hartu ondoren, ezarritako epean edo, egonez gero, emandako luzapenean lortutako destinoan lanean hasten ez badira, Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak lehiakidearen jatorrizko osasun-zerbitzuari intzidentzia hori jakinaraziko dio. Pertsona horrek interes partikularragatiko borondatezko eszedentzia eskatzen duela ulertuko da, estatutupeko langile gisa, eta bere jatorrizko osasun-zerbitzuak egoera horretan dagoela deklaratu du.

5.- TERMINOEN GLOSARIOA

5.1- Zer eremu daude?

- Destinoak ospitale-eremuan
- Destinoak Lehen Mailako Atentzioan
- Osasun Mentaleko Sarea
- Emergentziak
- Transfusioen Zentroa
- Erakunde Korporatiboa

5.2- Hizkuntza-eskakizuna.

Destino bakoitza bere hizkuntza-eskakizunarekin parekatuko da, derrigortasun-datari buruzko informazioarekin batera. Derrigortasun-data iraungita edo iraungi gabe egon daiteke.

5.2.1- Zer da iraungitako derrigortasun-data?

Jada pasa den data da.

5.2.2- Zer ondorio ditu iraungitako derrigortasun-datak?

Hizkuntza-eskakizuna destinora sartzeko baldintza bihurtuko da.

5.3- Lanaldia

Destino bakoitzak lanaldiari buruzko informazioa du esleituta, eta, beraz, eskatzaileak bere kategoriako destinoak aukera ditzake interesatzen zaion lanaldiaren arabera.

5.3.1- Zer da agenda irekia duen goizeko lanaldia? Astean 3 edo 4 goiz eta 1 edo 2 arratsalde dituen lanaldia da.

5.3.2- Zer da goizeko lanaldi lerrakor finkoa?

Lanaldi finkoa da, baina ez da ohikoaren berdina. Ordu gehienak 08:00etatik 15:00etara bitarteko tartean egiten dira (hots, goizeko txanda).

5.3.3- Zer da goizeko lanaldi lerrakorra, ordutegi aldakorrekoa?

Ordutegi aldakorreko lanaldia da. Ordu gehienak 08:00etatik 15:00etara bitarteko tartean egiten dira (hots, goizeko txanda).

5.3.4- Zer da agenda irekia duen arratsaldeko lanaldia?

Astean 3 edo 4 arratsalde eta 1 edo 2 goiz dituen lanaldia da.

5.3.5- Zer da arratsaldeko lanaldi lerrakor finkoa?

Lanaldi finkoa da, baina ez da ohikoaren berdina. Ordu gehienak 13:00etatik 20:00etara edo 15:00etatik 22:00etara bitarteko tartean egiten dira (hots, arratsaldeko txanda).

5.3.6- Zer da arratsaldeko lanaldi lerrakorra, ordutegi aldakorrekoa?

Ordutegi aldakorreko lanaldia da. Ordu gehienak 13:00etatik 20:00etara edo 15:00etatik 22:00etara bitarteko tartean egiten dira (hots, arratsaldeko txanda).

5.3.7- Zer da gaueko lanaldi lerrakor finkoa?

Lanaldi finkoa da, baina ez da ohikoaren berdina. Ordu gehienak 22:00etatik 08:00etara bitarteko tartean egiten dira (hots, gaueko txanda).

5.3.8- Zer da gaueko lanaldi lerrakorra, ordutegi aldakorrekoa?

Ordutegi aldakorreko lanaldia da. Ordu gehienak 22:00etatik 08:00etara bitarteko tartean egiten dira (hots, gaueko txanda).

5.3.9- Zer da 2 txandako lanaldia?

2 txanda dituen lanaldia da. Goizekoak, arratsaldekoak edo gauekoak izan daitezke.

5.3.10- Zer da 2 txandako lanaldia (goizez/arratsaldez), asteburu edota jaiegunekin?

Goizeko eta arratsaldeko lanaldia da, eta asteburuak eta jaiegunak hartzen ditu barne.

5.3.11- Zer da "2 txanda, bestelakoa" lanaldia?

Bestelako txanda-konbinazioak dituen lanaldia da.

5.3.12- Zer da txandakako 3 txandako lanaldia?

3 txandak (goizekoa, arratsaldekoa eta gauekoa) hartzen dituen lanaldia da.

5.3.13- Zer da lanaldi zatitua?

Eguneko lanaldiaren barruan nahitaezko etenaldia barne hartzen duen lanaldia da. Gutxieneko eta gehieneko denbora mugatuta daude.

- Goizeko ohiko lanaldia: 08:00/09:00etatik 13:00/14:00etara bitartean. Arratsaldeko ohiko lanaldia: 14:00/15:00etatik 17:00/18:00etara bitartean.
- Arratsaldeko ohiko lanaldia: 14:00/15:00etatik 17:00/18:00etara bitartean.
- Bestelakoak: ohiko ordutegiaz bestelako ordutegi zatitua duten lanaldiak.

5.3.14- Zer dira bestelako lanaldiak?

EAGaren esparruan hartzen den bestelako edozein ordutegiak dira.

-12 ordu edo gehiagoko lanaldi jarraitua.